

# DEBAKO XXXIX ANTZERKI ASTEA

2026ko maiatzaren 22tik 31ra



GOAZ

Antzerki Taldea



Debaiko Udala

## **Maiatzak 22, 19:00, Simon Berasaluze plazan**

### **Birakolore. Zurrunka Teatro & La Semilla Voladora (Gasteiz)**

Basilio eta Valeriak ekintzari ekitea erabaki dute: Haien gurditxoak lorez beteta dutela hiri zein herrietako kaleetan zehar bitzta landatzen, haziak banatzen, olerkiak eraiten, bihotzak dantzaratzen eta utopia praktikatzen gidatuko gaituzte.

Belaunaldien arteko topaketa xamur eta emankorra, non guztiok ongi etorriak izango garen parte hartuz gure hiriko paisaia eraldatzera.

Esperientzia dibertigarria eta hunkigarria, inor axolagabe geratuko ez dena.

## **Maiatzak 23, 19:00, Ispiluen gelan. Sarrera 6€**

### **Bernarda klownaren etxea. Zurriola antzerki eskola (Donostia)**

Bernarda Albaren Etxearen, klown estiloan landutako bertsio bat da. Pertsonaiek bere esentzia gordetzen dute, baina klownaren eraginengatik, disparatzen dira, handitzen dira, erotzen dira, eta muntai alai eta dibertigarri bat osatzen dute.

## **Maiatzak 24, 12:30, Ispiluen gelan. Sarrera 6€**

### **Abdukzioa, ke barbaridad! Arrapaladan (Elorrio)**

Komedia honetan Marisoli 1967an gertatutakoa kontatzen da. Marisol gizarte atzerakoi eta sinesdun batean murgilduta bizi da. Mundu horretatik ihes egin nahian, mirarien bila ari da: fedean bilatzen du baita beste dimentsioko gizarte aurrerakoietan ere.

Denboran jauziak egingo ditu, joan-etorriak eginez 1967tik gaur egunera arte.

## **Maiatzak 26, 18:00 eta 19:00, Ispiluen gelan**

Debako GOZATUZ ikastaroko umeak

### **Romeo = Julieta**

Itxarongela batean elkartu dira Romeo eta Julieta antzezlanaren egiteko castingera aurkeztu direnak. Denbora pasa ahala, urduritasuna, asperdura eta desberdinen arteko talkak agertuko dira, eta hasierako irudipenak, agian, ez dira diruditenak.

Umorearen eta egoera xeleez bidez, klasiko baten inguruko galderak sortuko dira: zer kontatzen dugu? Nola kontatu nahi dugu?

### **Herria lo**

Herri honetan gaitz handi bat dago. Isila, ikusezina... baina denoi eragiten diguna. Gaua iritsi da eta, iluntasunarekin batera, hilketa bat egon da. Bitartean, herria lo dago eta ez da ezertxotaz konturatzen. Herria, esnatzeko ordua da.

Umore absurdo eta surrealista erabiliz, ikerketa xeleez batean murgilduko gaituzte. Esnatu nahi al du inork egia ikusteko?

## **Maiatzak 27, 10:30, Ispiluen gelan**

### **Aizarnako Herri Eskola**

Lehen Hezkuntzako haurrentzat.





## **Maiatzak 28, 18:00 eta 19:00, Ispiluen gelan**

Debako GOZATUZ ikastaroko umeak

### **Requiescat In Pace**

Bakean atseden hartu aurretik bizitza neketsua da: gorputzak, buruak, lanak edota inguruak ez digute arnasik ematen.

Umorea eta egia gordina uztartuz, bizi-etapa desberdinetan barrena bidaiatuko dugu deskantsatzeko une baten bila.

## **Maiatzak 29, 19:00, Ispiluen gelan. Sarrera 6€**

### **Supituki show. Antzerki inprobisatua (Bilbo)**

Supituki show-a giro hurbil, dibertigarri eta errespetuzkoan egiten da, eta ikusleak sorkuntzaren funtsezko parte bihurtzen dira, publikoak idazten dituen esaldietatik abiatuta sortzen baitira istorioak. Umorea, sormena eta benetako magia eszenikoa puri purian.

Modu honetan bapateko istorio harrigarriak sortzen dira, inork ez baitaki zer gertatuko den emanaldian, gertatzen hasten den arte.

## **Maiatzak 30 eta 31, 10:00-13:00, Ispiluen gelan**

### **Inprobisazio tailerra. Supituki taldearen eskutik**

Dinamika eta antzerki-jolas praktikoen bidez, antzerki inprobisatuaren oinarriak landuko ditugu. Zure antzeste teknikan, bizitza pertsonalean nahiz profesionalean aplikatu ditzakezun trebetasunak.

Ikastaro hau denbora dibertigarri bat igarota, ikasi, jolastu eta hazten jarraitu nahi duen edonorentzat da.

*Izena emateko: [goazantzerkitaldea@gmail.com](mailto:goazantzerkitaldea@gmail.com)*

*<https://labur.eus/GoazAntzerkiAstea>*

## **Maiatzak 30, 19:00, Ispiluen gelan. Sarrera 6€**

### **Adriene bergson-johnson. Itzuli konpainia (Baiona)**

Adrienen pertsonaia pentsamendu neo-liberalaren metafora bihurtuko da, eta bere enpresaburu ikuspegi eta errealitatearen arteko desoreka izanen da gure ikuskizunaren umorearen iturria. Adriene atzerritarra denez, euskal gizarteari begirada berri bat ematen digu. Bere buruari dena baimentzen dio bere entzuleen barne galdezketak bultzatzeko. Bere "outsider" jarrerari esker, gure buruaz, gure ohiturez edota egoera batzuen absurditateaz irri egiteko aukera ematen digu.

## **Maiatzak 31, 19:00, Itziarko Burugorriin**

### **Alperrak, tunanteak eta maleanteak. Gilkitxaro (Bilbo)**

Gozamenaren aldarrikapena eta anormaltasunaren apologia egin nahi du antzezlan labur honek. Memorian eta historian arakatuko du komedia honek. Hain urruti ez dauden garai zaharrak eta gaur eguna horren ezberdinak ez direla jasoko dute inurri hauen antenek.



Sarrerak online eskuragarri:  
<https://labur.eus/GoazAntzerkiAstea>

Eta egun berean leihatilan.

